

## EAEko IRAKASLEAK

### **IKHA/COCU 2023-2024**

#### **Karrerako funtzionarioentzat:**

Ekainaren 3ko 12:00etatik ekainaren 7ko 12:00etara Lurralde Historikoaren aldaketa eskatzeko epea irekita egongo da, ofiziozko esleipenentarako.

Eskabideak: [hezigunean](#) prestatutako inprimakiaren bidez.

### **ADINAREN ARRAZOIARENGATIK IRAKASTORDUAK MURRIZTEA**

Behin-behineko ebazpena argitaratu da [hezikuntzaren web orrian](#).

Alegazioak aurkezteko epea: ekainaren 14a arte (barne) [hezigunean](#).

### **EPE 2022**

Lehiaketa-fasea: Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzako unitateek barematutako merezimenduen erreklamazioei erantzunak eta ofizioz egindako zuzenketak plazaratu dituzte aurreko ostiralean.

### **ZERBITZU EGINKIZUNAK**

#### **OETH (ospitaleko, etxeko eta arreta terapeutiko-hezigarriko zentroak) eta Berritzegune Nagusia**

Behin-behineko ebazpenak argitaratu dituzte. Erreklamazioak ekainaren 3ra arte, egun hori barne. [Lotura](#).

**ITLENT eta TKNIKA**ren behin-behineko ebazpenak argitaratu dituzte.

Erreklamazioak egiteko epea: 2024ko ekainaren 5era arte, egun hori barne.

### **LEKUALDATZE-LEHIAKETA**

Irakaskuntza ertaineko kidegoan behin-behineko destinoen esleipena argitaratuta dago. Erreklamazioa aurkezteko epea: maiatzaren 31tik ekainaren 6ra, biak barne.

Maiatzaren 28an, irakaskuntza ertainetan onartuen eta baztertuen behin betiko [zerrendan zuzenketak](#) argitaratu zituzten.

**Udako kobrantzan atzerapausurik ez!!!**

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)